

Publizitate-kartela errubrika

Ikaslearen edo ikasleen izena: _____

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXI
Kartelaren kalitatea: Sormena	Originaltasun handiko produktua da, eta xehetasun berri ugari ditu.	Nolabaiteko originaltasuna eta zenbait xehetasun berri ditu.	Emandako ereduetao ideiak erabiltzen ditu, baina ideia originalik gehitu gabe.	Produktuak ez du ez originaltasunik ez xehetasun berririk.
Kartelaren kalitatea: Osagaien kokapena / banaketa	Irudia, eslogana eta informazio-testua informazio-koherentziaz aurkeztu dira, eta behar diren leku egokietan agertzen dira behar bezala interpretatzeko.	Irudia, eslogana eta informazio-testua informazio-koherentziaz aurkeztu dira, baina antolamendua ez da egokia.	Osagaien bat ez da modu koherentean aurkeztu, eta ez da leku egokian agertzen behar bezala interpretatzeko.	Irudiak, esloganak eta informazio-testuak ez dute informazio-koherentziarik, eta ez dira leku egokietan agertzen behar bezala interpretatzeko.
Informazioaren kalitatea	Eraginkortasunez eta zuzen helarazten du mezua, eta jakin-mina sortzen du, informazio gehiago bilatzera animatuz.	Eraginkortasunez eta zuzen helarazten du mezua, baina ez du jakin-minik sortzen.	Modu nahasi eta zehaztugabeen helarazten du mezua.	Mezua ez da ulertzen.
Irudiaren kalitatea	Produktuaren ezaugarriak irudi erakargarri eta sinesgarri baten bidez identifikatzen dira.	Produktuaren ezaugarriak irudi erakargarri baina ez oso sinesgarri baten bidez identifikatzen dira.	Produktuaren ezaugarriak identifikatzen dira, baina irudia ez da ez erakargarria ez sinesgarria.	Ez dira produktuaren ezaugarriak identifikatzen.

